


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

249n. zenbakia
martia-epaila 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**FRUNIZ'KO
ANDRA MARIA**

IZKERA LORRIÑA

Mezedetako beste kalte egiten diardue euskereari, gure alkartzebideetako esatariak. Erderearen menpean bizi direalako edo, euskal-senik ez dauke arean be.

Euskaldun jatorrori entzumenetan min egiten dauskuen okerkeri asko entzuten doguz itzetan, aditzetan, esakeretan, joskeran, oguzkeran eta abar. Berbetearen zentzun asko ez dabe, beintzat: **Donosti-a** esan bearrean, **Donos-tia** esan darue; azkeneko i eta a askatuta esan bearrean. Bardin **Prantzia** be, **Fran-tzia** esan bearrik **Fran-tzia**, azkeneko i eta a askatu barik. Donostiak euskeraz lau atal daukoz: Do-nos-tia eta Prantziak iru: Pran-tzi-a.

Esatari eta idazleen artean beste umekeri au be sarri entzuten da: **sarritan** (**maiz** gipuzkeraz) esan bearrean, **askotan** esan darue. Berbetan ez dakien umeak esaten dabe, **sarri** esan bearrean askotan eta olako tentelkeriak.

Kiroletako esatariak, barriz, au, beste erderakada itxusi au darabile: Ostiko-pelotako azalpenetan, erderazko **segundo tiempo** adirazteko, **bigarren zatia** esan darue, **zattia** euskeraz beintzat, beti erabili izan dogu gaizko izakientzat: sagar-zattia, ogi-zattia, gaztae-zattia ta abar esateko. Gaizkoak ez direanenetzat, puboleko ekitaldia lez, lelengo **ekitaldia**, bigarren **ekitaldia** ta abar esan bear dira, ba, baldin itz zuzen egin gura ba'dogu eta ez erderakada itxusi baizen baztergarri ori. **Zattia** barik, **ekitaldia**; gipuzkeraz ba-da, **jardunaldia**.

Beste ekandu ganora bako bat be sartu da gure artean: erdi erderaz, erdi euskeraz itzak atontzea: Komunika-bideak, deklina-bidea, junta-etxea ordena-gaillua ta abar. **Ordenar** esateko euskeraz beti

erabilli izan dogu, **atundu**. Zegaiti ez, ba **atongai-llua?** Komunikabideak baiño errezagoa ez da, ala, **alkartze-bideak** (gerratean **alkartzeak** erebilten geundan. Deklinabidea baiño erresagoa ez al da, ba itzen biurkerea?)

Beste tentelkeri bat **azi** esan bearrean **anditu** esaten dabe. Ume ori **anditu daitenean** esan ezkeru, umea **edenduta** dagoela esan nai dau, **anditu** erderazko **intxar** dogu, ba. Eroski edo olako zerbaitegaitik be ezin esan daikegu **anditu, geitu** baiño. Ene! euskera gaixoa! Lorrindu bear dauskue geure benetako berbeta ederra...

Beste esateko asko be ba-dodaz baiña, urrengoan geiago.

Aurre-apraiz'tar Balendin

Gizona

Izadiko nagusi
egin zinduzan Itzak
erriaren aurrez;
lurra begira dozu
zure zuzentasuna
goratuz eskarrez.
Gora jakituria
zure egiñen bitartez
gizontasunaian;
aup erri zentzunduna
mendi solo ta zear
zelai orlegian.

Paulin



BIZKAIERIA TA POLITIKARIAK

Joan dan urterillaren 22n. egunean, Deia gure egunkarian idaz-lan labur bat dator idazpurua au dala (gastele-raz, jakiña): Bizkai'ko euskerea.

Idaz-lan labur orren barruan jakingarriak eta aztergarriak diran gai batzuk datoz. Ikasi eta aztertu daiguzan.

Errigintzarako iru alderdiak euskereari buruz dabazan diru-jokabideak beteteko, gai eztabaidagarri bat Bizkai'ko euskalkia izan da. Ez da gitxi mailla orretan arazo au agertzea bera be, eskertzeko gauzea da.

Eztabaida orretan PP'ko abosdunak, esango ebana gauza arrigarria zala jakin arren, auxe esan eban: Bizkai'ko euskereari arlo guztietan diru-laguntza geiago emon bear jakola. Gutzat arrigarri PP gure alde egotea da. Ez ete datoz autarkien billa? Oraintsu berba egin gendun Gasteiz'en Rabanera Aldun Nagusiagaz eta antzeko berbak esan euskuzan.

Eta zergaitik esakutzen eban PP'k Bizkai'ko euskerearen alderako laguntza ori? Erantzuna gutzat jakingarria da: ONU ren txosten baten Bizkaiera galtzeko arriskuan dagoala agertzen dalako. Nik ez nekian ONU k berak be gure arrisku aundi onen barriak jakin eta agertu ebazenik. Askok dira munduan gure bidea ontzat artzen dabena, Bizkai'ko euskerearen alde dagozanak!

Baiña PP'ren eritxiak ez eban onartzerik izan. EAJ, EA eta EH k, diñoenez aurten Bizkaierearen alde egingo dan alegiña naikoa litzakena baiño be aundiagoa ei da.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eigu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Zertarako bear dogu ba, laguntza, bai EUSKERAZALEAK eta bai EUSKERAZAINTZA'k?

Elburu bitarako batez be: Lenengo ekintzak beteteko: Aldizkariak eta liburuak argitaratzeko, euskerearen egunak errietan egin, omenaldiak bide dirala errietan euskeraz egiteko zaletasuna indartu, sariketak eta abar. Orretarako zerbait emoten dauskue, Udalak, Aldundiak eta Jaurlaritzak, baiña guztiak batera dirala ez dira eltzen urteko iru milloira. Aurten geiago izango dalakoan gagoz.

Baiña beste arlo baten be bear dogu laguntza: Alkarteak eta Erri-Akademiak curen eguneroko zeregiñak beteteko: Joan-etorriak, idazgo lanak, lanerako gaiak, etxea, urrutuzkiña... Ala lan egin eta gaiñera eralketak be geuk ordaintzea eskatzen jaku? Dirurik ez ba'dago ori be egingo dogu, baiña guztientzat izan daitela bardin eta ez Euskaltzaindiari eundak milloiak, langilleak ordaintzeko beste, eta guri ezer be ez. Eta Euskaltzaindia ez dago Bizkai'ko euskerearen alde. Eurentzat Bizkai'ko euskerea gure izkuntzaren gorputzak irauteko galdu bear dauan besoa baiño ez da. Orrei bai emoten jake laguntza ugari! Orrelan aterako dogu aurrera gure bizkaiera!

Jazoak jazo izan arren, ez uste izan PP'ra joango garanik! Aleginduko gara Bizkaia'n euskeraz egiten eta Bizkai'ko euskerea egiten jarraitzeko. Ez aitzu: Bizkaiera galtzen ba'da, emen ez da batua egingo. Olako aldakuntzak gaztelerara garoaz. Ori da, gorputza gaizkatzeko besoa ebagitea.

Olazar Martin'ek

EUSKAL ELEIZEA

Euskal-Eleizea, bere kondairan zear, sarri-askotan izan da nazionalistatzat salatua. Euskal-Abertzaletasuna, bere zentzun politiku utsean 100 urte daroaz —gitxi gora bera—, baiña esan bearra dago Euskal-eleizaren kondaira oneri buruz, abertzaletasuna sortu baiño antxiñagoko garaian be badagola salaketaren bat argitzea bear izan daitekena.

Euskal-eleizea, euskal-siñismendunen Komunitatea da. Komunitate onek bere Gotzain, Kleroa, Lekaide-Lekaime eta Laikoak osotzen dabe. Ona emen Eleiza onen kondairaren aldi zati bat:

Araba'ko Armentia eta Balpuesta'ko Gotzaingotik asita, oraingo espainiar laterriaren euskal lurralde osoa, XVI, gizaldian, iru Gotzaingo onetako ardurapean egoan: Iruña, Kalagorri eta Baiona.

VII. mendean, Iruñako Gotzaingoan, eunetik irurogeta amar (100'etik, 70) eleiztarrak euskeradunak ziran. Orduan Kalagorriko eleiz-legearen arauak, euskal lurraldeetan, sermoiak, itzaldiak, erromantzezko izkuntzan egin bearrean, euzkeraz egin dai-tezela agindu eban.

1567 ganen urtean, Espainiako Erregeak erejiaren arriskua atxakitzat arturik, gitxienez XII gizalditik Baionako gotzainak antolatzen eban Naparra eta Gipuzkoako lunaldearen zatiak, (Aita Santuaren bidez), Iruñako Gotzaingora eroatea lortzen dau.

Ostopo politiku batzuk jasan bear izango ebazan 1862an Isabel II erregeñak, Gazteiz'ko Gotzaingoa eskatu eta jasotzea lortu ebanean, Españaren onerako, noski. Onexek Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko iru eskualde zibillak osotzen ebazan.

Lenengo gotzaiñak, Diego Mariano Alguacil, Eleiza eta Gotzaingo onetarako izendatzea eskertzen deutso bere Majestateari, Aren esanetara jarriaz, aginduak gogo onez betetzeko asmoz.

Urrengo beste lau gotzainak bide ber-berekoak

izan ziran. Laugarrena Zakarias Martinez Nuñez. Onek auxe aldarrikatu eban: "Maldición a los españoles que reniegan de su patria" (1923-10-12).

Azkenez, 1928 garrengo urtean, Mateo Mujika, lenengo euskal-gotzaiña izendatu eben.

Gazteizko gotzaingoak, orduan, antolaketarik onena eta Seminariorik ospetsuena izan eban eta Iruña'gaz batera bokazio asko. Oso erlijioso ziran laikoak, batez be.

España'ko Monarkiaren amaieratako burruka politikoetan eta Errepublikaren denboran, Gazteizko seminarioa "semillero nazionalista"tzat salatua izan zan eta "batzoki" deitua.

1931 ganen urtea joian Mujika Gotzaina, Errepublikak aginduta, erbesteratuta Euskaditik kanpora aldendua izan zanean. Biurtzen da 1933 garrean eta emengo, bertoko agintariak iraindu, gaitzetsi egiten dabe Mujika gotzaiña PNV'ko botoa legez-kotzat onartzen daualako "beste alderdi konfesionallak baizen katolikoa" dala-ta, agian aitatu ebalako.

Azkenez, Franko Generalak, 1936ko gudean garaille, aren atzeniratzea agindu eban, Batikanoak berak be arelako politika zikiña onartuz. Mujika gotzaiña okerbidez, itxuskeriz artua izango da eta laster txirotasunean il be, bere eleiztarrak eta aladeak alde ebazala.

Dikataduraren lenengo ogetamar urteetan, Franko'k Aita Santuari aurkeztutako euskal Gotzaiñak danok dakigu zelako jokabidea erabilli eben, Eleizaren eta Diktaduraren serbitzuan.

Euskalerrian, ez abade leial eta eleiztarrak, ezta eleiztar ez ziranak, fusilatuak, kanporatuak, legez-turiko frankista terrorismoaren biktimak, ez eben aldezte publikorik izan euskal Artzain oneekandik. Eleizako izentatze guztiak Frankoren onartzea eroien. Olan eta guztiz be, Gasteizko Seminarioak "Batzoki" izena eroaten jarraitu eban.

Euskal-ikasle ugaridun izan da Gasteizko Seminarioa. Erdera utsa erabilli da bertan —edo izan da bere izkuntza—, eta euskal abestirik errugabeena ere itzulita kantatu bear izan da, jaialdiren baten "Agur jaunak" abestia kantatu zana bere, aldiz aurretik itzulia izan bear zalarik.

Euskal kulturari buruz iñoiz ez ei da berbarik egin, ezta Euskalerraren arazorik aitatu be izan.

Diktadura edo Franco'ren denboretako azken urteetan gauzak zeozer aldatzen asten dira. Euskal-Eleizeak ez errezago baina bai egitan kristiñauago eta eskubideakandik urrago, baita erosoago bizi dau bere bizitza.

Sortzen dira eritxi eta polemikak Komunitateko euskal-siñismendunen artean, barru eta kanpoko aldean; ez bardiñetako zioak, zergaitiak dirala-ta (exzepzioko egoerak, Añoveros kasua, "23-F"), "LOAPA").

Orain, joan dan bagillean 11an salaketa au agiri da: "grave hegemonía del nacionalismo de la Iglesia Vasca". Salaketa zikiña froga konkreturik gabe eginda. Esan oi da ez dala "intelectual" bat onelakorik esan bear leikena, gitxiago ondiño abade bat. Baieztatzen da "lo desatendidos que hoy se encuentran por nuestra Iglesia los fieles que no son de ideología nacionalista". — Barriro be erasoka betiko leloari ekiten dautsoe.

Esandako salaketa ori, ezeren oiñarririk ez daua, euskal-Eleizarako "kalumnias", gezur-gaizto biurtzen da. Izenpetzaileraren artekoetan dagozan lau abadeek ez ei dabe ezagutzen "dokumentu" edo argibide ori, ezta ikusi be ez dabela egin eta siñatu egitea be ukatzen dabelarik, guzurraren susmoa damotso gaiari.

Gainera "alegato" orren agerpena auteskunde bexperetan, edo, izanik, au ulertzeko ez da alegin aundirik egin bear jakiteko nundik datorren arasoa

"electoralista" usain larregi daroala urrunetik asma-tzen dalako baita.

Azkenez, oneri geitu bear izango deutsagu, euskal-eleizeak bakeagaitik egiten dauan alegiñari, onelako jokabideak ez deutsola onik egiten, ostera izugarritzko arrikadea emoten jakola gaiari, ez bes-terik.

Larrondo

MENDIA

Gora goraka dagoz
euskal mendi ederrak
urdintasunpean;
Kalamua eder da
lagunekin izketan
Bizkai magalean.

Amesgarria zagoz
zugatzak aldapetan
ta arkaitzak puntan;
ardiak dabiltz pozik
janariak gozartzen
bedartz orleietan.

JAKITURIA

Giza jakituria
loreetan lore zara
urrezko argia;
eguzki bera baiño
argi goa zara
itz sinisgarria.

Jakituria itza
Kurutzatik jatorku
maitasun tartean;
odolez argitu zan
giza errukarria
itxaropenean.

Paulin

GALDU EBEN BURU BILLA

Eguzkitsu egun baten, euenian Erriate ausoko agure bat, beren etxe aurrean, ezerrita alkian, agertuzan, alde areitan, gizon bat. Onek, ikusi alaz agureari, alderatuzan oneri, ta begirunez esan eutsan: "Egun on, jaun". Ta agureak erantsun eben: "Egun on, jaun". Gero ezaneben gizonak: "Eguskitsun egun on bat eukiko dogu gaur. Ta agureak erantsun eutzan: "Ikusten dan lez, bai". Orrelan, poliki poliki, ekin zan izketea bion artean.

"Etorri naiz leku oneitara artuteko egurats gar-bea; uztendotelako izango dala neretzat ona..."

Agureak itaundi eben: "Gaitzen bat aldako beorrek?:"

Gizonak erantsun eben: "Gaisorik ez, ez, nik ez dakot gaitzik. Egia ezateko, Jaun, nik dakotena da eztabaida bat, nagolako galdu neben buru billa".

— ¿Zer?, ¿Zagozela galduzeben buru billa?— agureak itauneutsan.

—Bai, ori da nere eztabaida. Ori bakarrik, ta ez da gutxea neretzat. Ori entsun ebenian agureak, olduztu eben berentzat: "Gizan au soratuta dago ¡Gixajoa!

— Nere eztabaida ez da ozagilleak osatuten dabenekoa-ezan eben gizonak.

Gizon arek, ikustenebenez, agureak nai ebela onena berentzat jarraitu eben ezaten: Jaun, ikustendot, beorrek dakola gogo onena neretzat, ta orregaitik eskerroneko beorreri". Jarraitu eben ezaten: "Nerea ez da osagilleak osatuten dabena. Nere erabaizkua da: Galdunebela bein burua, ta oraiñ nagola nere buru on billa. Ez dakit nun galduneben nere burua. Orain ulertuten nago, nere Jaun ona, ze zuloan, ze irten-ezin zartu nitzan galduteko nere burua.

—Ez uzte, jaun, nagola soratuta. Ori ez. Egia da egonitzala soratusunen bidean. Baña, egun on-on baten, ipiñi nitzan oldoztuten: nun, zelan da noiztik okertusan nere egikera, nere gizabidea, ta ordutik ikusinitzan: nun, nola da zelan urten nitzan nere bideonetik, ta zelan zartunitzan amiltegi ertzean.

—Orain— jarraitueben gizonak— nere jaun ona, ¿ikusten dago beorrek zelakoa dan nere eztabai-

da? Ta ¿Zergaitik nauen, bide zuzenean, nere buru billa, garbitu ta ipiteko egon bear dan lekuan?

Agureak, entzunebenaz gizon areri, geratu zan guztiz ixillik, oldoztuten berentzat: "Gaurko, entzun dotenaz, ustendot neikoa dala".

II

Bai, agure arentzat, neikua zan. Ta zartuzan beren etxean.

Egun aretan, arratsaldean etorri zan osagilla ezagututera zelan euan osasunez agurea, ta ikusi alaz ondo euela, poztuzan. Baña agureak ezan eutsan osagillari zelan, egun aretan, goizean, ezagutu ebela gizon bat, ezatendabena "dagola beren buru billa".

Osagillak entzuneutzanian agureari, itaundietzan oneri: ¿Zer esaten dozu? ¿Alde oneitatik agertu dala gizon bat ezaten: dagola beren buru billa? ¿Zein da ori? ¿Nun dago?

Agureak erantsun eutsan: "Nik ez dot ezagututen. Bai, emen egonda, ta izketan neregaz; ezan dabena dana egangotzut. Ta agureak, entsuneben dana gizon areri erakineutzan, dan dana osagillari.

Entzun alaz osagillak gureari, gizon arek ezaten ebena, oldoztu eben berentzat: "¡Azkerkizun garrantzizkoa!" Izanlezke, aurrerabideko katarsikoan". — Ta oldoztu onegas, osagillak itaun eutsan agureari: "Baña ¿ez dakitzu gizon ori zein dan? ¿Nun bizidan?

— Ez, ez erantsun eben agureak ¡Auskalo nun bizidan, auskalo...!"

Osagilleak, berriz oldoztu eben, berentzat: "Nik jakinbierdot zein dan gizon ori, zelan dan azkerkizu ori". Orretan ba. "Agur ta osasun on" ezanez agureari, joan zan osagilla jakiteko gogoaz zein zan entzuneben edesti gizona.

III

Eldu zanian osagilla errira, ipiñi zan askertatu-

ten zein izango zan billatuten eben gizona. Ta orretarako erkidetuzan izpar-idazle lagun bategaz, izeneko Patxi. Onek entzun eutsan osagillari zer nai eben, zeen billa euen dabenen ondoren ez dakit nun egon lezken oraiñ. Dakixena orren ondoren ezangotzut, edesti baltz bat:

—Dakixena da: gizon orrek euki ebela beren bizitz ordialdi aundienetako; edateari gogor emuten eutzela; borrokari itzalgarri zala; urte-urtero mozkor liskarea zala; irriskin batetik urten alaz zartzen zala beste irrisku aundiagoan. Gaispide itzalgarria. Moskortasun batetik beste aundiagoan, ikuzi zan-arte nastuta gaizkille artean, baña guztiz moskortuta: giltzpeian, gaizkille, arrato aundi ta zikinkerri artean".

Iru illebeta, gora-bera egon zala giltzpeian.

—Urten ebenian andik, edo an barruan (orretan ez nago argi) oldoztu ieben, lenengo aldiz: "urte larrietan izan naiz "Buru galdu bat". Ta ordutik, ezagututen zan "Beren buru billa"— lez.

—Egun areitatik aurrera ekin zan (ustendot) gizon aren zuzentasuna. Baña beti, ezaten: beren buru billa, ibilla.

—Orain dakit, zureatik, agertu dala erriko auzo baten. Nik ez dakit geiago orren ondoren.

—Ondo dakitena da, gizon ori ez dala ERRIA-TE-n jaioa, baña be jakindua dala-ezan eben Patxik.

Ta onen ondoren itaundi eutsan Patxik osagillari: "Orrelakotan jaustendana ¿ustendozu jaikilez-kela?

Osagillak erantsun eutsan: "Ez beti. Ez zarrri. Ez da erreza... Baña, bizitenbada, zainduten bada..., ez bada berriz jausten lenengoan ezin lezke ezan ben-benetan ezer orren ondoren. Ni ez naiz igartzallea. Osagilla bakarrik naiz. Nik itaunduko-tsut: "Biar ¿bizikogura gu?"

Ez zan jakin ezer, gizon aren ondoren ogetairun urtean...!

IV

Izpar barri billean dagozenak egunez ta gauan-entsuten ta usainka, begiak beti eduki, egoten dea ¿Nun ez? Ta orrelan, ezagutu zan Patxi-ren izpar-ringeon, izpar ardiragarri au:

"BESTE IRAKASLE

ONBIDESU ILDA

Erriotz. Erriotzeko, Saspibai, Erriate, Erribake, ta beste azko errikoak dagoz negarrez, ildalako onbidesu irkasle guztiz maitatua danaitik.

Orain izango dea ogetabi urte, etorri zala Erriotzera gizon jakintsu bat, ONBIDESU IRAKASLE bat, ekiñzala bearrian ildan arte, Arriarte baserri aldeko DANOKBAT auzoan.

Entzun bier da, leku oneitakoak ta alde gustietakoak ezaten dabena Irakasle onen ondoren.

— Ona etorrian, galdudogun Irakasle Jauna, emen ez euan jakixenik irakurten, ez idazten baikitzen izena.

Ori baño geiago: Egun ta urte areitan, DANOKBAT zan, basozati bat. Emen gizonak larrei edaten ebein, gero ipiteko burruketan, ta orretan entzuten zian... (oba da ixildutia). Baña etorrianetik gure IRAKASLE JAUNA, dana aldatuzan. Beren itz jakintsuaz, beren laguntasunaz, dana aldatasun. DANOKBAT da gaur ERRIOTZEKO gertakisun onena. Emetik, ezer zan leku batetik, il dan gure irakasle Jaun ikastetxetik, urten dea, orain diazenak: Osagillak, irakasleak, ta beste gizon jakintsuak.

Arriotzeko iltokian izango da luperatuta, izeneko Mate Garizelai Aldekoa, irakasle onbideaus. Erriotz, Saspibai, Erriate, Erribake ta ainbeste erriko ikasleak, irakasleak, ta danetako biotz one-takoak batuko dea emen, ezateko azkenengo agur, izanzanari onbidesun maitatua".

Izparbarri-idazle Patxik, idaztieben ardiragarri ori, ezin eben eutzi eben malkoak, ezan alaz: Egi aundiena da, garala ezer.

Irakasle onenetako bat il- da, il zanez nere lagun osagilla nai ebenak ezagutu egiteko aldebe-na lagunduteko orain ildanari.

Banan banan joatengara, bañe ¿ba al dago egi aundiagorik? Bitartean... ori da bizitza ta? "¿BITARTEAN zelakoak ikusten dea!" — ezan eben Patxik.

Ontzategitxu

Lima, Perú

* Ipuin au dago idaztita Bizkaiko antxiñako euzke-rean.

ABERRI BARRIA (1° SARIA)

Euskaldun, lagun
Ames egin daigun
Ames zoragarria, Ames lilluragarria
Amesa-amesa, baina egia.

Aitor, euskaldunen Aita,
Añamendiko edurretan obiratua izan zana,
biztu da.
Eta bere ilobiaren estalki zuria jaso,
eta mendi tontorrean zutunik,
esku biak zerurantz goraturik,
Euskalerriko lau aizeetara asi da deadarka:

"Euskaldunok,
ordua da lo-zorrotik itxartuteko,
euskal Aberri Barri bat sortzeko.
Gure gurasoen oitura eta lege zarrak galdu ditugu.
Euskera gure izkuntza maitea azkenetan dago.
Gure aberrian arrotzak dira nagusi.
Euskalerrri gure aberri maiteari ezin deusagu ilten itxi.
Aberri Barri bat sortu bear dogu.
An euskaldunak geure buruaren jabe izango gara.
Guztiok euskeraz egingo dogu.
Euskaldunak euskaldun lez biziko gara.

Euskalerrria maite dabenak,
euskaldun zintzo lez bizi gura dabenak,
zatoze nigana.

Goazen munduan zear Aberri Barri bat billatzera.
Ilik dagoan Euskal Espiritua biztera".

Eta Aitor zarraren inguruan eundaka eta milaka
euskaldun zintzo batu dira.

Eta euskaldunen Aita danen erdian zutunik,
bere ingurukoei asi da bere asmoa aditzera emoten.

"Euskaldunok,
Badira an urranean eguzki aldeko itsaso zabalean
eundaka ugarte zoragarri,
gizonak bere oin zikinaz oraindino loitu bakoak.
Paradisuaaren parekoak.

An ez da uda eta negurik, urte guztian da udabarri.
An sortuko dogu ernen galdu dogun Euskal Espiritua.
An emongo dausagu asiera euskal Aberri Bardad...

Nork gura dau gugaz etorri?"

Eta euskaldun jatorrak,

euskal Espiritua maite ebenak,
asi ziran jo ta ke,
itsas olatuen gainean ibilteko almadia bat egiten.

Auzolanean basoetan aretx eta pagoak ebagi,
itsas-bazterrera narraz ekarri,
enborrak estu-estuan alkarri lotu,
eta almadia sendo bat egin eben,
itsas-galernarik gogorrenari be aurre egiteko alakoa.

Eta almadiaren lekurik ezkutuenean
Gernikako Aretxaren ezkur bat gorde eben.
Aberri Barriaren erdi-erdian landatzeko.

Eta an doaz euskal abertzale gartsuak
almadiaren gainean,
itsas-olatuen bizkarrean, Aberri Barri baten billa,
biotza garretan, agoa kantetan:

GU GARA EUSKADIKO GAZTEDI BARRIA.
EUSKADI BAKARRA DA GURE ABERRIA:

Zenbat dira? Nora doaz?
Ameslariei, mesedez, ez olango itaunik egin.
Afrikako ur beroak igaro,
Indiako itsasoa atzean itzi,
eta Ozeaniako itsaso zabala begien aurrean agertu
jaken.

An urranean zeru-mugan ugarte pilo bat ikusten zan,
ur gainean, itsas-txorien antzera, olatuakaz olgetan.

Aitorrek bere jarraitzaileei diñotse:

"Euskal seme-alabok,
gure ibillaldia amaitu dogu.
Buruak argi! Eta begiak bizkor!
Gure euskal Aberri Barria eragiteko,
itsaso zabaleko ugarterik bikainena,
biotzentzat alaiagarriena, eta bizitzeko egokiena
aukeratu bear dogu".

Eta ara eta ona, andik eta emendik,
luzaroan ibilli ondoren,
ainbeste ugarte ederren artean bikainena aukeratu eben,
amesetan be ederragorik ezin aurkitu leikena.

Ene! Ugarte aretako ondartzeta legun, zabalak!

Ango ibai, erreka eta iturrietako ur garbiak!
Ango mendi eta basoetako zugatz tantai, mardulak!
Ikusgarriak ziran!
Begiak ez ziran eurei begira asetzen...!
Ango ondartza zabal baten alboan
ibai ugari batek bere urak itsasoratzen zituan,
bokalean portu baten antzeko ur-geldi bat eratuz.
Arantz joan zan gure almadia,
euskal ameslariak bizkar gainean zituala,

Legorrera eldu, eta lurrera jaitsi ziranean,
pozetan zoraturik lur barriari belaunikaturik
mosu emon eutsoen,
Mosu luze, bero, itxaropentsua,
amak bere ume jaio barriari emoten dautsan
laztan maitagarriaren antzekoa.

Eta danak -Aitor be bai- pozaren pozez,
biotzeko zorionari ezin eutsirik,
negarrez asi ziran,
alaitasun negarrak, gitxitan ikusten diranak...

Begietako negar iturriak agortu ziranean
Aitor almadira joan zan,
eta andik Gernikako Aretxaren Ezkurra artu,
eta legorrera ekarri eban
Aberri Barriaren erdi-erdian landetako.

Eta Ezkurra lurlean sartzen eban bitartean,
otoitz au zerurantz jaso eban:

ZERUAN EGUZKIA ETA EURIA,
ETA LURREAN OSASUNA ETA BAKEA
IZAN DAIEZALA
ARBOLA ONEN KERIZPEAN
BABESTEN DIRANAK.

Eta Aberri Barriko abertzaleak
Ezcurraren inguruan zutunik,
alkarri eskuak emonez,
arnas batean, biotzak irakitan, abestu eben:

GERNIKAKO ARBOLA DA BEDEINKATUA.
EUSKALDUNEN ARTEAN GUZTIZ MAITATUA.

Eta Aberri Barriari asiera emoteko,
jai andi bat atondu eben.

An aurkitzen ziran Bizkaiko ezpata-dantzariak,
Lizarrako dultzainariak, Donostiako txistulariak,
Iparraldeko dantzari, eta beste guztiak,

Dantza eta kantu, ujuju eta irrintzi,
Aberri Barriari ongi etorririk beroena egin eutsoen.

Eta au sinistu ezina!
Ango euskotar guztien agotan euskera bakar-bakarrik
entzuten zan.
An ez zan beste izkuntzarik onartzen:
Aitorren izkuntza zarra, gure euskera maitagarria,
bere muiñean Euskal Espiritua gordeta daukana.

Euskera barik, ezin da Euskadi Barririk.
Eta au miraria!
Euskera entzunaz batera,
Gernikako Aretxaren Ezkurra,
lurpean susterrak emoten asi zan.
Eta gero landare mardul eta zugatz tantai eginik,
bere adarrak lurbiraren azken mugetaraino zabaldu
zituan.

EMON TA ZABAL ZAZU MUNDUAN FRUTUA.

Eta Euskal Aberri Barriko abertzaleak,
mundu zabaleko beste euskal zintzo guztiekaz
alkaturik,
lurreraino auzpezturik, ago batez, biotz betez,
itxaropenez,
abestu eben:

ADORATZEN ZAITUGU ARBOLA SANTUA!!

Egia? Amesa?
Ai! Egia balitz!
Ez naizue, mesedez, itxartu lotatik.

Goikoetxea'tar Iñaki

EUSKALDUNA

Lur maitegarri ontan
euzkotar jaio ziñan
sortzetiko legez;
zure itz bardibageak
berezkatuten zaitu
giza zorionez.

Izkuntz danen artean
lurra arritu dozu
zure edertasunez;
ez daukazu bardifiñik
jakitunen eritxiz
zure biziagaz.

Paulin

EUSKERA GALTZEN ALA IRABAZTEN?

(Alkar-izketa bidez)

Kepa'k: Miren adiskide: Sarritan ekiten dogu, esan eta esan, euskerea aurrera doala ta atzera doala. Gure eztabaidak agertu daiguzan gaiak urrengorik urrengora dirala. Gero idatzita agertuko doguz ZER gure aldizkariaren irakurleentzat.

– **Miren'ek:** Ederto deritxat, baiña asi-aurretik kontratzen naz zu baiezkorra ta ni ezezkorra agertuko garala. Nik beti aurkitzen dot "baiña" bat.

– **K.:** Nik gogoan daukat zelako poza artu neban lenengoz irratian euskeraz itz egiten entzun nebanean. Uste gendun gure euskerea etxekoa zala, ez irratikoa. Eta irratitari buruz diñodanak telebistarako be balio dau. Or asko aurreratu da eta gaur gure etxeetan euskera asko entzuten da. Lenago berbatxu bat be ez. Lenengoe-tarikoak izan ziran Basarri k eta Oñatibia'k La Voz de Gipuzkoan eta baserritarrentzat egiten ebezan alkar-izkera pozgarriak.

– **M.:** Bai neu be asko poztuten naz euskerea entzutean, bai irratian eta bai telebistan, baiña ez aitzu erdere be sendiaren barru-barrura len baiño askoz geiago sartzen dala. Gaiñera irratia eta TB'k erabilten daben euskerea ez da balioko gero etxean jarraitzeko. Beste izkuntza bat dala dirudi. Ipar-aldeko euskerea be iñoz entzuten dogu esatariak bertakoa erabilten dabela, baiña iñoz ez da entzuten esatari bat bikaieraz itz egiten. Zergaitik? Sarritan Bizkai'ko euskerea erabilten daben arrantzaleak edo baserritarrak landu-bako euskerea erabilten dabe. Gure erria baztertuta agertzen da izkuntza-arloan eta orrelan ikus-entzuleak erriko euskerea gorrotatu edo alboratu egiten dabe. Amamak esaten dau sarritan: Gure umeak euskera polita ikasi dau. Gurea motza da, guk ez dakigu. Eta gure zarrak, alfabetatu-bakoak izan arren, ikastoletako umeak baiño askoz obeto berba egiten dabe, bai itzak, bai joskera eta bai, batez be, doiñua.

– **K.:** Irarkola-arloan be asko aurreratu da euskerea. Euskerazko aldizkariak beti izan dira eta gaur askoz geiago. Egunkaria be ba-daukagu. DEIA'n be ainbat euskera agertzen da. Liburu asko argitaratzen da gaur euskeraz, eta saldu be bai. Jaurketa-arloko Agiri Nagusiak (Boletiañak) be elebitasuna darabille. Erderazko izparrigietan be il-txartelak gitxienez euskeraz be artzen dabez.

– **M.:** Liburuak saldu bai egiten dira len baiño geiago. Aldizkariak be antzera, baiña irakurri? Elebitasunez agertzen diran Agiri Nagusiak, ulertu nai ba dozuz, ez da naikoa izango euskerea irakurtea. Euskera oso ulergatxa izaten da. Eta ulertzea lenengo bear dan gauzea dan ezkerero, erdera irakurri bear izaten da. Gaiñera Egunkari ta Deia bera baiño askoz geiago saltzen da Korreoa, beti gure arerio izan dana. Erderea askoz nasaiago dabil.

– **K.:** Euskerea egiten daben lurraldeak be zabaltzen doaz gaur. Len lurralde askotan, esaterako Araba ta Naparroan, euskerea galduta egoan eta gaur berbizen asi da. Antzera Bilbao'n eta Bizkai'ko Errekartean eta Enkarterrian. Errioxa'n eta arago be euskerea ikasten asi dira batzuk.

– **M.:** Euskereak bi milla urte gitxienez daroaz lurraldeak galtzen eta azken-urteotan Ameriketako inditarren antzera basoetako "reserva" antzeko batzutan baiño ez da bizi, ortxe baiño ez daukaguz euskaldun-euskaldunak eta or be ia guztiak dakie erderaz berba egiten eta orregaitik egiten dabe euskerea txarragoa. Ni gitxi poztuten naz erdel-errietan euskerea ikasten dabenakaz. Euskera ori galdu egingo da. Iparraldeko lurburuan diran edurtzetan limoiak sartzearen antza dauko orrek. Baiña ez da galdu bear itxaropena. Ikasi dagiela, ikasi ta zabaldu.

– **K.:** Gaur eskola ta ikastoletan diarduen ikaslerik geienak D eredia artzen dabe. Or ikusten da gurasoen ardurea eta ikasleengan izan bear dogun itxaropena. Urte batzuk barru asko sartuko euskerea gaztcetara eta ortik erri guztira. Gurasoak diru-moltzo aundiak emoten dabez ikastolai laguntzeko, "Naparroa oiñez" eta olako ekintzetan.

– **M.:** Or ba-dago pozbide bat. Baiña guk ume-denporan eskolan erderaz egin bear izaten gendun euskerea zearo galazota egoalako, baiña kanpoan euskeraz egiten gendun. Gaur, ostera, ikastolan euskeraz diarduen umeak, euren jolasetan erderaz egiten ikusten doguz. Gure erri aunditxuen kaleetan erdera geiago entzuten da euskerea baiño. Lenago ez. Atzera goaz eta arin gaiñera. Ez aitzu, izkuntza zelan galtzen dan ikusteko, latiña erriak galdu ebanean, erromantzea artu ebanean, Ikaste-

txe Nagusiak eta ikastetxeak latin egiten jarraitu ebela, erromantzeari "jerigonza" esaten outsoen. Eta orrelan jarraitu eben seireun urtetan, liburuak be latíñez idazten, baiña azkenean latiña il egin zan naizta bere "semeengan" zelan edo alan bizirik egon. Azkenean bizirik, erriak egiten dauana!

- K.: Len bide-ikurrak guztiak erderazkoak ziran. Kanpotik etorten ziranak ez eben jakiten euskerea egiten danik be. Gaur osteria euskeraz edo elebietan ikusten doguz.

- M.: Ori ondo dago, laguntza da, baiña gauza ofizial bat baiño ez. Len be erri-izenak-eta euskeraz erabilten ziran euskeldunen artean. Sarritan txarto euskeratuak izan dira. Esaterako, Sollube ra igoten asieran au irakurri gendun: "Zorua itxuragabeturik. Kontuz" (suelo deformado). Zoroa dabillega ulertzen zan.

- K.: Eskera batua be lortu da eta Euskalerrri osoan euskera bat egiten da. Orrek indar aundia damotso euskereari Ikastetxe Nagusirako naiz argitalpenak egiteko.

- M.: Bai. Batzuzaleak arro dabiltz euren atxea ta guzti. Ez dakie zelako kaltea egin dautsoen euskereari. Euskerea ilten ba'da, ba-dakigu nortzuk diran iltzailleak. Gaur eta emen euskerea etxetik dakianak ez daki eta ez dakianak ba-daki. Or daukaguz umeak euren aiti-tagaz eta amamagaz alkar-ulertu eziñik, azkenean etxean erderaz egiteko. Erriko euskera, batez be bizkaieria, galtzen ba'da, ez uste izan batua egingo danik, erderaz egingo da.

- K.: Euskerea indartzeko milloiak eta milloiak erabilten dira. Iñoz euki ez dogun lako laguntza daukagu.

- M.: Egi pozgarria da ori berez, baiña ez da lagun emoten erriak euskeraz egin dagian, goi-maillan euskerea egiteko baiño. Eta, esan dodan lez, ori euskerea galtzeko bidea da. Olako zerbait jazo ei zan Irlanda'n. Askasun osoa lortu ebenean euren izkuntza galdu egin zan. Gaurko politikariak euskerean alde dagoz, beintzat euskaldunak, eta erdeldunek be ez dira ausartzen aurka berba egiten, autarkiak ez galtzeko, baiña ori dana itxura utsa da. Euren batzarrik geienak erderaz egiten dira.

- K.: Gure sendietan oraindiño euskera asko egiten da.

- M.: Zarrak bai, baiña etxean bertan umeak eta gazteak erderaz egiten dabe euren artean, naiz ta aitak eta amak edo aititak eta amamak orregaitik asarre egin.

- K.: Gure errietara kanpotar edo etorki asko etorri dira eta onein umeak euskerea ikasten dabe. Ori be itxaropenarako bidea da.

- M.: Umeak dira geien ikasten dabenak eta ori itxaropena ba-da, baiña zergaitik ez dabe ikasten gurasoak eurak? Agur esatea be gatx egiten jake. Umei onelan berba egiten dautse: "Iñaki, tienes que..." Eta umeak geiago begirutzen dautsoe eredu edo jarraibideari, berbeari baiño. Eta inguruko erria euskalduna ez ba'da, alperreko lana da ori.

- K.: Bankuetan eta jaurketa naiz lantegietako idazgoetan, jantokietan eta abar, euskera be egiten da.

- M.: Olako zerbait entzuten dogu, baiña kontua da egia baiño geiago. Geienetan, "ikasten ari naiz" esaten dautzue edo erderaz berba egiten da. Janari zerrendak edo menuak iñoz euskeraz ekarten dabez, baiña ulertzeko erderari begiratu bear izaten jako.

- K.: Eleizetan, Bilbao'n be bai, euskerea entzuten da.

- M.: Erdel-errietan len baiño obeto dago gauzea. Bilbao'n bertan be Gure Aita edo olako ezaugarrien bat entzuten da, baiña erri euskaldunetan, abade gitxi dagoalako, elebitasuna artu bear izaten da. Ori galtzea da, naizta mezaren bat euskeraz egin. Gaiñera parroki aundietan batzarrak erderaz egin bear izaten dira sarritan, entzuleen artean erdeldunen bat dagoalako. "Inditarrren reserba" antzekoak diran erri txikietan bai, beti lez euskeraz jarraitzen da. Eta or be bateoak-eta egin bear diranean, erdeldunenak ba'dira, erdera be sartu egin bear izaten da.

- K.: Labur esateko, nire ustez euskerea aurrera ta aurrera doa!

- M.: Ez nator orretan zugaz batera. Euskerea galtzen doa erriaren barruan, irabazten agirian eta itxurazko arloetan. Ori benetan arriskugarria da. Erria da izkuntza zaintzen dauan norkia, errian zaindu bear dogu euskerea eta ez dogu zaintzen bear dan bestean. Ez dot galdu oso-osoa itxaropena. Gizaldietan bizi izango da euskerea bai doan bidetik jarraitzen ba'dau... Eta beste izkuntza txikiak be bardin. Euskereak besteak baiño barru-indar askoz geiago dauka, baiña gaur daukazan arerioak iñoz baiño indartsuagoak dira: Irarkola, Irratia, TB, etorkiak, mundua baserri baten antzeko biurtu izatea eta abar. Olako areriorik ez dau iñoz euki euskereak. Erri berezi bat gara eta lortuko al dogu laterri aurreratuen artean iñok lortu ezin izango dauana.

Olazar'tar Martin'ek

AITON GAZTEA IRUZURTUTA

Bai, ezagutzen dot aiton gazte-ori bai! Eta ikusi be bai zer gartatu jakon, billoba bataiatzeko egikeran.

Guztiz nekatuta ikusi neban, Ludi ontarako, Kristautasunezko san-era erderaz egin eutseelako billoba ri.

Beren aitu-ezinezko itauna: "Nun egongo ziran ARNAS-SAINDU' aren edo ISPIRITU-SAINDUA ren Apostolua'ri buru gainean ipinitako Izkuntzaren SU-MINAK?' zan. Aituko dabe ori?"

A ta guzti be, beren asar'ea gordez, Kristau Karisma'tar batsuekin solaseko mintzaldian egonda, argi itzi eutsoen, zer ulertu eban berak an egindako Elizkizunetatik, eta galdera baten antzera berba auek itzi ebazan euren artean: "¡HABLE USTED EN CRISTIANO!"

Ez ziran onartuak izan, edo zalantzan bai beintzat berba oiek nik ikusitakoakin, eta orregaitik azalduko dodaz bananduta, zeintzuk diran aiton-gazte orren arrazoiak asarre agertzeko, Okan ospatu zan elizkizunagaitik.

Leenengo, aitonaren lana:

- Lan-tokian.
- Sendian.
- Erriari begira.

a) Gazte gazterik, aitonen elburuak, gauza-agurgarri edo sakratu-lez bere burni-olako lantokian, treznerien egokitasuna eta langilleen artean adostasuna zan, on-bide orretatik, mozkin-gintza bai etxerako dirua be, errez, geien eta poz-guztiaz lortzeko. Ez zan sekula be bere egokitasunagaitik arduratu, goiko mailan dagoan arduradunaren egin bearrak zirelako beren gogo aundiko ulermenean. "Berezko Ordaiñak" esaten eban dirala, gauzak ondo egiterakoan. Eta atan joan zan burni-olako lantoki ori, elburu guztiak lortuz.

b) Etxean bardin. Sendia, askatasunaren bidetik, ardurak ondo zainduaz, elburuak lortu-gura ebazan; eta lortu eben urte askotan beintzat, kanpoko burutakizunak etxean agertu arte. Ba dira bai!, dardo edo gezi pozoituak etxe barrura sartzen diranak.

d) En-iaren osasunari begira. Beti esaten eban, giza-barne ori lortzeko, leenengo beste biak ondo-bete bear dirala: "Berezko ordaiña dalako orduan, Erriaren Zoriontasuna". Euskeraz egitea Euskaltasuna lortzeko. ardura nagusi-lez euki da. Etxetik Iri'ra errira!, Euskal-jantzi onenakaz danon aurrean agertzeko.

Bigarren: Aitonak izan eban bildurra.

a) Etorri diran arazoak: Egineko gauzaren azalketatan, beti kontu aundiekin on-agertu daitezkan, eurak daukien egin-bearra arduraren arloan kontuan euki barik, edo gauza gutxian beintzat. "LANA!" deituaz agertzen ziran danon agoetan, erabil bear ziran alai, benetako, bai bearrezko ardurak. "ITZ MADARIKA-TU" bat lez.

Orregaitik, eten-bako ardura izaten zan aiton orrentzat, etxetik kanpora bialtzea, etxe barrura sartu-gurean ibili ziran indar txarrak, aize indartsu txar-bat lez, nai ikas-bidean, Euskeran, etxeko oituran. Euskal Nortasunean eta abar.

Alkar-izketa azko egin ebazan. arduraren arrazoiari buruz aiton gazte orrek. Bat baino geiago arrituten zan, euren asarrean Euskera garbian eta bizi-bizian egiten zuelako. GAUR?

b) Izan diran indar txarrak: Euskal senideak daukan ardura nortasunezko oitura arloan, aurka edo desegiteko alegin aundiak.

Andra-arteke solasean, etxeko ardurak erabagitea, etxean eskontzak eskatzen dauan lotsagizunaz bete bearrean. (Amona batek esate-eban lez: "gaurko andrak, ez dakite zer gure daben be; ez dot uste, ezer dakienik esku-arteau daukienakaz").

Euskerak bear dauan indarra Euskalerriko giza-barrena osatzeko'en aurka, nagikeria edo lotsa, bestea dalakoan garrantzi aundiagokoa. Kontuan euki da, danez gain tartekatu egin bear dala guztiari, gaurko indar amorratua eta modan dauana betebetan: "Xautzailetasunezko (consumismo) bizitz-au". Berak bakarrik esan gure dauana: "ez jakineko bizitza baten sartuta gagozala guztiz", dana irentsuteko naian.

Aitzu barik, JAINKOA'ri danon otoi-alditan, lar eskatzen dautsagula eta gainera eginda, guk ezer egin gabe. Aaztu jaku zertarako bialtzen gaitun JAINKOA Ludi ontara? Ez da izango, egin bear doguzan gauza guztietan BEREN LEGE'az arduratuta beteteko'? Aiton gazte orrek alan ulertzen dau. Bai, bide zabala dala be, nagikerien menperatasun ori, errira eta etxean sartu daitezkan ez bearrezko indarrak, gure menperatzille arrotzaren poz betean, fruitu aundiak emoten dautsozelako.

Irugarrena: Gaurko joka-bide batzuk.

a) Fede arloko taldeak eta guztiok, geiegi eskatzen dogulako gure orde eginda, ardurarik'ez baten sartzen gaitu bete-beteau oitura-lez. Olan dala, gizak, lortu bear dauan bizitzarako elburu guztiak, erdi-purdika geratzen dira, eta agiri-agirian ardurarik--eza.

JAINKOA danok bialtzen gaitu gai ontara arduradun bereziak izateko, eta BEREN Legearen, danontzat bardiña dana, ordezkokoak zainduz, pakez bizi gaitezkan.

Ori da!, Mundu fisiko baten beartu gaitu, guztiz. gauzak diran lekuan kokatuta, eta orregaitik banan-banan zenbakitu, ugalgarri (multiplicable) eta zatikatu egin bear diran nai-ta naiezko tokian, Neurri aundian gaiñera, edo ardurazko ordearen neurrian, bakoitzaren arima, gauzazko nortasunaren ordezkoa biurtu gaitualalo.

Erreza da orduan ulertzea, nire ardurak beste baten arduratan itzi ezkeru, nire nortasunezko ardurak, beren nortasunezko arduratan edo eskuetan geratzen dirala.

Ba-dira Mundu ontan egon-larriak, eta alan jokatu bearrezkoak, BEREN Legean sartzen diralako; baiña..., arrapatari, menperatzille edo etsai baten eskuetan nai-ta naiez itzi bear doguz gure nortasunezko ardurak? Joko ori, argi dago aurka kokatzen dala JAINKOA'ren Legeaz. Eta olan itzi edo jokatu bear dogu, menperatzaille, etsaiak edo arrapatariak gure dabela? Ludi ontan, ez dira nortasunaren ardurak, ordezkartzako jokuan izanda neurtzen diranak? KRISTOK BERAK!, bialdu ebazan Eleizatik ostikadaka menperatzaille eta guzurti guztiak.

Kontuan euki bear dogu orduan, nor-beren nortasunezko berezitasun burutapenetik (concepto) askoratu egiten garela sen-

di aundi batera. eta bearrezkoa dala, danok daukaguzan izatasunezko zertzelada bereziak zaintzea. nortasuna argi eta garbitasun guztiaz agertu daiten. Bestela, nork igar¹ zein da zer edo nork? Giza jainkoratu'en naian? Erri guztietan bardin izanda, erri-arteke arremanak eta egarriak JAINKOA' ren Legez asetzeko, lotsagizun eta ardurazko ordezkari bikain danok izanda.

Beste gauza bat agertzen da gaur egunean, borrokan bizi-bizia dana: erriak daukien izaera garbian agertu naian bakez eta nor-beren ardurakaz bizitzeko, menperatzailearen indar-pean gagozelako erri berezitasunezko geienak.

Nor da Nor, nire edo gure ardurakaz jabetzeko? JAINKOA'K, zertarako bialdu ninduan bizi ontara? Ez ete da JAINKOA' ren agindua, menpetik edo illunetik (jakin-bidea) argitara edo askatasunera azaltzeko, lotsagizun eta arduraren ordezkari-tzako bizi bat lortzeko? Aiton gazte orren zinismena or-dago bete-betean.

Elburuaren hurutapena, zertzelada askorekin betetzen da, eta danak dira ardurazko neurrian kontuan artu bear diranak, danak bearrezkoak izanda, bete egiten dabezelako elburuak: baten bat, bidean galtzen ba-dogu, nortasuna beti aren ezean geratuko da, Mundu fisiko bat dalako gure bizi-toki-au.

Karismatikoak ondo ezagutzen dauz aiton gazte orrek, eta sarritan esaten dau, aukera ikaragarritzkoa daukiela Euskaraz ikasteko, alegin gutxi bategaz, apurka apurka ezagutzera itzulean erakutsi ezker; baina "LANA" da itxura baten, eta orregaitik erderan guztiz menperatuta. Ardura larregi daukie azaleko erakuspen era gaitik, eta ori ondo egongo litzake, biotzez oiñarrizko gauzarekin batera joan ba-ziran.

Ez orregaitik bakarrik, bai euren karmeldar aolkulariagaz berbetan egonda, argi azaldu zalako zinismena nolako zan: "larritasunak osatu gurean". Baiña "oiñarrizko burutakizunak alboratuta? Ori, menperatzailearen jokuan sartuta egotea da. Bestela, nola aitu aitonen billoba'ri, euskalduna izanda, Kristautasunezko bizitzaren sarrera erderaz egitea? Orrek, ez dauka garbitasunik beren ustez.

Gaiñera. aitonari arpegira esan eutson endakeri zalea zala, beren senidezko euskal-oiñarriak zaindu egiteagaitik. Geiago argitzen dau, erdi-purdiko ulermen orretan, utzunezko dauela JAINKOA'K ipini gaitun Legearen gora-beran. Edo menperatzaile agindupekoa?

Emakumeen aurrerapena edo garapena: Euren gogamenean, bardin edo Karismatikoaren antzean dabiltz azaleko jokoan, bai arrotzaren arazoak eurenak diralakoan artuta, gugaz ezer ikusirik ez daukienak, dana naaztuaz, arrazoen oinarririk gabe, eta gainera gure oiñarrizko arrazoen ardurak bastartuta edo txarto dagozelakoan.

Nundik nora sartu jakuz orrek indar txarrok! Menperatzaileak Frantzezak eta Espaiñolak egiten daben indarrezko estukuntza-gaitik kikildu egiten diralako? Or! larritasunezko arazoak gure familien artean, eta aiton gazte orrenean aundia. JAINKOA'ri begira dabiltz? Ez da egia ori! Ez da izango len esan dodan antzera, menperatzaile jokoan sartuta dagozela? Gaur egun, dan guztia politika arloan sartuta dago, (arrazoen burruka ain aundia dalako). eta baliteke etsaiak, ondo bideratuta sartu dauskuezala gezi pozoitsu auk. Gainera bizi-bizian dagozenak.

Gauzaren elburuak, sekula! ez direz konpontzen edo lortzen naaztetan bidetik; eta lortzen ba-dira be, ulermeneko utz aun-

diekin. Ori gura dabe ba! berezitasunaren menperatzaileak, guzurtiak eta arrapatariak, eurek, arrazoiaren egon zirela esateko. Baiña zorionez, giza bizitz-au beti harriztuten doalako, gazteen biotz garbiak, beti alenginduko dira gauzak bere lekuan kokatzeko.

Arazo aundia da ba!, baiña eten-bako alegina egin bear dogu, menperatzailearen jokuan ez jausteko. Auek ez dabelako gura, guk zintzo jokatzea JAINKOA' ren LEGE-bidetik, curen jainkotasuna desagertzen dalako. Orregaitik itxartubearra daukagu, ezeztasuneko bizi baten jauzi ez egiteko.

Ludi onetako bizitza ez da gurea, ordezkari batzuk baino ez garelako; nai ta naiez konturatu egin bear gara orregaz, beztela, bizi-labur edo luze-baten guriak eginda dagoz; eta orrek esan gura dau, Euskaldunak ez dabela jakin JAINKOA' ren agindua beteten.

Badauka bai ! zer esan Euskalerriak Mundu onetan, bere bizi luzcan ainbeste ikasi dauelako JAINKOA'ri eta LEGE ZARRA'ri begira, Ludi onetako giza, bide onen zuzentasunean ezartzeko.

Laugarrena: Zer gertatzen da Abertzale sendi baten

a) Larritasun anndiak, abertzaleak oiñarriren bidetik jokatu gure daualako bizitz-au eta Aberkide aundia dalako; baiña beste aldetik, gaurko giza garaiak daukan xautzailetasunezko egarriak, bai goian esan doguzan oiñarriren arloan erdi-purdika ibilteagaitik, ezta-baida gogorak sortzen dira. Abertzalearen zinismena, beren ardurazko ekintza aituten daualako, orrek errakuntzak argitu eta garbitzen dauzala: beti gura dauelako eguneroko ardurak on-betetea etxearen zorionerako.

Orretaz, ez-ete dabe zer ikusirik eukingo esaera batzuk'?: "eskatu egiozu AMA BIRJINA'ri asterketa on-bat egin daizun", eguneroko ikaskizunak zentzunez bete bearrean? Aiton gazte orrek, orren gora-beran esaten dauana: "Izkitegitik, nor beren gogoan izki baten utsean edo ez-jakintasunean egoten ba-gara, gure esan-bear guztietan izki-orren utsa beti agertuko da!"

b) Orduan zer lenago, gizon/emekumeen berezitasuna ala interesak?

Berezitasunezko bidetik zalantzarik gabe. Zereginezko gauzatan, ondo bete edo ordezkoak izan ezker, onuraren baldintzak berez bete egiten diralako.

Beste gauza bat da, xautzailetasunezko bizi-baten oso-osoan egonda, berak daukan indarra, bultza egiten dauskulako menperatzaile, arrapatari edo berezitasunezko'en etsaia izateko. Orrek indarrok, ardurabako ordezkoak diralako. bai leenengo lege-oiñarriren utsa daukielako.

d) Nolako egoera eldu da sendietara?:

Egoera larria dudarik gabe, Eta Abertzaleentzat urduritasun aundiko bizia, ikusten daualako nolako kalte eta ostopo egiten dauan erdi-purdiko joko orrek. Bien egin-aldi izaerak aurkakoak diralako.

Aiton orrek beti esan dauana da, gaur egun gure Euskal-telebista eta isparrangiak, alegin asko egiten dabezela gure erriari orretaz laguntzeko; baiña begitu zenbat diran aurka jokatzen dabenak. Orregaitik E.A.J'ak badaukaz batzoki, elkarte eta erribatza tokiak, gure arteko iritzi ustelak edo indar txarrek alboratzeko. Arlo ortan, alegin apur-bat baiño geiago bear dogula uste dau aiton gazte orrek, elkarte orrek gure zentzunetik kanpo dabilzelako.

Atutxa'tar Paul

EUSKALERRIA EDESTI GIOIA (VII)

BI BALE-ONTZI EZAGUNAK

"San Nicolas" eta "San Juan"

Bi bale-ontzi oien berri zeatzak: bat. "San Nicolas". Joan de Espilla debarra zan bere kapitana: Terranoba'rako bidea bete zuen 1564 urtean. Eta, bestea, "San Joan". Portu bere kapitana, Labrador' en (Kanada) ondoratuta gelditu zan 1565'an, urte bete beranduago.

"San Nicolas"

Bilbao'ko astilleroetan egin zuten. Landaverde zan nagusia eta Joan de Espilla kapitana. Nagusia eta kapitana desberdiñak ziralako paperetan idatzi zituzten arremanak, tratoak. 475 toneladako bale-ontzia zan, 72 gizaseme barruan.

Iru mastako galeoia zan. Sei kañoi aundi eta ama-bi txiki zitun; bederatzi alde bakoitzeko (arkabuzak ere bai), bi kintal polborarekin; bi dozena ballesta bakoitza amabi azkonekin eta eunka bestelako bur-nizko armak.

Espilla'k barkua bere mende Portugalete'n artu zuen. Nagusiak sei aukeratu zitun: maixua, kontra-maixua, arotza, kalafatea, mariñel bat eta zaindari bat. Ogeta lau kapitanak aukeratuak ziran Lekeitio eta Deba'n. Beste berrogeita lau bear zitun oraindik eta oien billa Getari'ra gerturatu zan. Eta, andik irtzen zuen Terranoba'rako.

Joan-etorria egiteko gauza asko bear ziran ontzi-barruan: masta, aingura, belak, soka ugariak, txalupak bakoitza bere tresna guziekin, amoko edo istupa (estopa: Calatayud'ekoa zan onena), pikea ontzia istupateko eta abar. Ontzia istupatu bear zan azpitik, aldamenetatik eta gañetik itxasora irten baiño lenago. Gero an barriro egin bear zan onuntz etorri

aurretik. Pike eta amokoakin batera, lan oien osagarirako, animalien kintal koipe bat ere bearrezkoa zan.

Arrantzarako tresnak ziran bearrezkoenak: txalopetatik asi eta arpoi, xabolin, estatxa eta abar. Labeak egiteko bear ziran gaiak, zer esanik ez: arriak, buztina, tellak, galdarak... Koipeak ebagitzeko bear ziran aizkora, aizto, tiña, barrika eta egur-ikatza labeak pizteko.

Janak eta edanak: ogi-galletak, aragia, zeziña, urdaia, babak... Ardo, sagardo, txakoliña, pattarra... Ez dakigu zeatz-meatz zertzuk eramane zitun gai aue-tatik San Nicolas barkuak; baña, egun aietan Doniane Loitzun'etik irtendako 140 toneladako ontziak (40 gizaseme barruan) zertzuk eramane zitun bai, badakigu. Ona zeintzuk: 20 tonelada ardo, 120 kintal galleta, 10 kintal urdai, bi kintal t'erdi olio, 22 binagre barrika, 120 libra kandela, barrika bat baba, beste bi barrika ale eta bituallakin...

1770'garren urtean berreun toneladara iristen ez ziran barkuak, ona zertzuk eramane zituzten Marinako Agintariak ziotenez: 230 kintal galleta, 60 sagardo barrika, 12 ardo barrika, 12 barrika baba, bakallau sikua eta sardiña zaarrak... Orretzaz gañera mariñel bakoitzak eramane zuen urdaiazpikoa, gazta eta pattarra jantziak gordetzeko zeuzkaten kutxatilletan. Bota luzeak ere eramane zituzten larruzko jantziekin, toki otz aietan lan egiteko modukoak...

Lau barkuen berri badakigu edateko zer eramane zuten: 1681'urteko lau barkuak auek ziran: San Pedro, Na. Sra. de Aranzazu, Na. Sra. de Begoña eta San Juan; edana, gizon bakoitzentzako 2 barrika t'erdi sagardo, lau gizonentzat txakolin barrika bat eta gañera edatekoa beste toki batetik ere ekarri ornen zuten. Zer edari? Ardo'? Pattarra? Egarriz ez ziran

iltzen. San Nicolas geure barkua, Bilbo'n armatu zuten, armadorea, bertakoa zan da.

Segurantzirik gabe ez zegoen orrelako ibillaldi luzerik asi eta orixe egin zuten Terranoba'ra irten aurretik. Eta negua amaitzearekin batera irten zuten Getaria'tik Kanada'ra. Etsairik gabe eta eguraldi onarekin eldu ziran Akadia eta Terranoba arteko pasadizora. Aurrerago aukeratu zuten ondartzat bat; mollak egin, labeak eta txabolak jaso eta indioekin azoka bat antolatu: kastor-larruak sagardo, aizkora, aizto eta ogiaren truke... eta balearen ondoren ekin...

Atak badoaz egaka egoalderuntz, 1195 barrika egokituta daude iru ganbaratan; kalafateak istupatu du berriro ontzia azpitik, aldamenetatik eta goitik... Agur, Kanada; agur, indio lagunak; agur eta datorren udaberrirarte...

Bilbo'ra eldu dira eta egin dute barriken banatzea. Badaukagu 1566'garreko dokumentu bat eta San Nicolas'es barriken banaketa onela egin zan: 1195 barriketatik irutik bat arrantzaleentzako, 398 barrika; nagusiarentzat laurdena, 298 1/2 eta beste amabi aurretik jasoak, danetara 509 1/2.

Ibillaldiaren soldata danentzako berdiña zan: 5 barrika, 200 kilokoak: danetara, 1.000 kilo.

Orretzaz gañera abantallak eta sariak banatzen ziran. Geienak armadorearen bizkarretik. Ona urte orretan zer sari jaso zituzten armadorearen eskutik:

- Kristobal Txanez, oriotar arpoilariari	10 barrika
- Domingo Zarraondo, zarauztar arpoilariari	10 barrika
- Domingo Sebi, getariar arpoilariari	10 barrika
- Juan Lpz. Murgurizar, ondarrutar arpoilariari	10 barrika
- Juan Arana, getariar arpoilariari	5 barrika
- Juanes Lersundi, zarauztar arpoilariari	2 barrika
- Gaspar Elgueta, ondarrutar pilotuari	20 barrika
- (eta beste lan batzuegaitik)	7 1/2 barrika
- S. Juan de Gorostizu, laguntzailleari	1 barrika
- Domingo Mallona eta bere laguntzailleari	3 1/2 barrika

- Ramon, Baiona'ko barrilleruari	4 1/2 barrika
- Joannes de Aranza, Getariar barrilleruari	3 1/2 barrika
- Domingo, barrilleruari	2 1/2 barrika
- Agustin, barrilleruari	2 1/2 barrika
- Juan, Baiona'ko barrilleruari	4 1/2 barrika
- Txo, guztientzako	8 1/3 barrika
- Kapitanari	15 barrika

Emen agertzen dira 6 arpoilari eta 6 barrilleru.

Arpoilariak 4'k egiten zuten lana batera. Beste biak errepuestorako ziran. Orregaitik irabazten zuten gutxiago: bale gutxiago arrapatzen zutelako. Baña, barrilleruak zergaitik diferentzi ori? Baiona'ko biak, maixuak dirudite.

Armadoreak 113 1/3 barrika banatzen ditu eta beretzako gordetzen ditu 396 2/3 barrika.

Nagusiak sei gizon aukeratu zitun, eta seirentzako ditu abantailak:

- Kapitanari	10 barrika
- Kontrainaixuari	5 barrika
- Arotzari	3 1/3 barrika
- Zaindariari	2 1/2 barrika
- Kalafateari	2 1/2 barrika
- Kañoi serbitzariari	2 1/2 barrika

Nagusiak 25 5/6 barrika banatu zitun eta beretzako gorde zitunak 272 2/3 barrika. Dirutza aundiak ziran bale-arrantzan erabiltzen zirenak. Aizkeneko gizonak ere milla kilo (5 barrika) erabazten zitun, abantallak alde batera utzita.

Oraindik orain arkitu duten San Juan barkua aztertzen ari diran Kanada'ko jakintsuek diotenez, barika bat oraingo dirutan ipiñi ezker, 700.000 pezetatik 1.050.000'ra zuen prezioa. Ori barrika bakar batek. Gutxienaz 5 irabazten zitun bakoitzak eta abantailak aparte.

Baña, bale bakoitzak 250 bizar zituen (ballenak) eta ainbeste barrika betetzeko baleak ere ugari izango ziran; baña, bizarren konturik ez dakarte. Badegu, ordea, beste ontzi txikigoaren banaketa. Onela dio: Marin Goyangos ontzia, "Filibote" izenekoa, txikiagoa zan San Nicolas baiño eta 206 barrika besterik ez zuen ekarri. Banaketa egiten dutenean, bizarrak ere

aitatzen ditu: Kapitanari, 28 barrika eta 200 bizar; pilloturari, 14 barrika eta 40 bizar; maixuari, 8 barrika eta 16 bizar... eta abar. Beraz, ekartzen zituzten.

Beste ontzi batek, Le Saint Sprit, Joannis Sopite kapitana, 200 barrika ekarri zitun Terranoba'tik, iru bale t'erdi il zituzten eta bale oietatik 80 kintal bizar ekarri zituzten. Neurri orretara, San Nicolas'ek 1995 barrika betetzeko 36 bale il bear zituzten eta 480 kintal bizar ekarri... Baña, ori suposizio bat besterik ez da. Ez bait degu bizar oien berririk. Arrisku aundiak eta dirutza aundiak. Jende gaztea prest joateko.

Arrisku aundiak ustegabeen

Belanger, Kanada'ko istorigilleak dionez, bere liburuaren, 144 orrialdean, 1577, gure bi barku auen joan-etorria baño amabi urte beranduago, Gipuzkoa'ko barku-talde osoa izotzetan preso artuak izan ziran. Bale eta bakallau ontziak, eta 540 gizon il ziran. Aien artetik 17 zarauztarrak. Barku-pilloa galdu, giza-seme gazteak galdu eta bildurra sartu barruan... Oraingo Labrador'eko ikerketan 125 ildako topa dabez illerri batean. Gazteak: 20 urtetik 40'ra bitartekoak.

Alaz ere irabaziak gizonaren biotza tentatzekoak ziran. San Nicolas ontziak 5 barrika soldata bezela jaso zuen bakoitzak. Barrika batek 700.000'dik 1.050.000'ra pezeta balio zuen. Boztek, 3.500.000'tik 5.000.000'ra. Diru asko zortzi illebete-tan irabasteko. Orretzaz gaiñera datoz abantailak: lau arpoilariak bakoitzak 10 barrika sari: 7.000.000'tik 10.500.000 pezetara sari. Kapitanak, berriz, beste orrenbeste: 20 barrikatik gora...

Izotzak dakarren eriotza; Felipe II'ak emandako agindua; baleontziak "La armada invencible"rako bear zitula; Igalaterra eta Frantzia'ko politika, lunaren jabe egin indioen bizkarretik eta euskaldunak andik kanpora bota kañoi-tiroka; euskaldunen aotik balea arrapatzen eta urtutzen ikasi, konpañi aundiak jaso, eta indar geiago euskaldunak baztartzeko...

San Juan bale-barku ondoratua

Pasai'tik irten zuen Labrador'era eta udazkenean, 1.000 barrika koipe barruan zituztela, aize-bolara

batek, amarrak eten, aurreko aitzen aurka jo, eta ondoratu. 1565'aren udazkena. Ur-azpian egon da lareun urtez, 1978'an billatu zuten arte, Red Bay deritzan parajea; gure aurrekoek Gran Baya deitzen zioten leku arreri.

Nundik nora aurkitu zuten ontzi ori?

Selma Huxley ibilli zan ibilli liburutegietan euskaldunen aztarna-billa eta aizkenerako Oñati'ko unibersidadera jo zuen, artxibora. Euskaldunek ez degu idaztirik uzten baldin bitartean eztabaida ez ba'dago. Eta ango paperetan San Joan'en kapitan Portu'ren eta Ramos Arrieta eta Borja jabearen arteko burruka agertzen da. Nagusiak erruak kapitanari botatzen dizkio. Kapitanak bere buruaren garbitasuna egiten du. Eta ori egitean, esaten digu nun zegoen izugarritzko Ifar-aize-bolada sortu zanean; amarrak eten eta ontzia aitzen kontra bota zuenean. Golpeakin ontzia lertu egin zan eta ondoratu. Gizonak eta barrika pillo bat salbatu zituzten baña, barrika talde bat eta ontzia ondoratu.

Selma'k eskatu zion Kanada'ko Gobernuari ikerketak egiteko toki aretan eta antxen topa zuten, erditik irikita, bixigua parrillan bezela, oztzia eta zenbait gauza xeeak ere bai. Amar metrora edo dago ur-azpian.

Inguru aretan labeak ere aurkitu dituzte lau edo bost; baleontziak dauden tokietan labeak ere bearrezkoak dira. Baña, ontziaren egurren artean gauza zeeagoak ere agertu dira: burnizko arpoi bat M señaleakin (Euskalerra'n galdetu dute eta erantzun diete M ori Mondragoi'ko produktoa dala) eta bi metroko maki-lla eldu-leku eta 160 metroko soka luzea; matxete bat, 41 zentimetro luze eta 4 1/2 zabal; aizkora bat, 18,30 zmt. luze eta 8 1/2 zabal; ballesta baten zatiak; errosario baten 15 ale beltzak; artillezko erroa zatiak; kutxa baten giltzatxo bat (mariñelak eramaten zituzten kutxatxoak gaztaia, urdaiazpikoa, pattarra eta jantziak eramateko)...

Barrika duelak ere agertu dira, aritzezkoak; lotzeko ez zuten burnirik erabiltzen, lan ori unen txotxe-kin egiten zuten eta urren adar asko an daude; barrikak, upelak, an bertan egiten zituzten emendik eramandako materialakin (San Nicolas baleontziak sei tonelero zitun; barrikak armatzen lana danentzako) eta artarako bear ziran opatxur (azuela), plankai edo

aasa (cuchilla de cepillar) eta beste lanabesak, guztiak daude ondoratutako San Juan ontzian.

Euskalerritik eramandako tellak edonun sakabana-tuta daude; angoek esaten dutenez, soroetan tella geiago dago azak eta patatak baño. Lur aietan ez dago buztiñik eta ez dute tellarik ezagutzen emendik eramandakotik aparte, Zeramikako (mayólica) jarra bat bi belarriekin 10 zentimetro luze eta fuente polit bat. Kristalezko kopa oso fiña, 15 zentimetro luze, arrautza-azala bezin meea. Arriak ere badaude, emengoak; labeak ereikitze eta gero, barrikak gelditze era-billiak bodegetan.

Txanel osoa ere bai, bale-arrentzarako erabiltzen zutenetako. Orretzaz gañera itxas-orratza, eta bere ontzia; arilkai bat aria biltzeko edo, ontziaren ibiltasuna neurtzeko; arezko erlojuaren bastidore bat, izarren mogimentua neurtzeko "astrolabio" bat (gaurko sextantearen aurrekoa) eta bale-ontzi baten irudia aiztoaren muturrekin egiña aga batean... Sas-kitxo baten makallau gazitua ere topa dute, aizto baten arrastoeekin, jaten zuten señaleara. Bear ba'da, bale-koipeakin batera ekarri ere ekarriko zuten makallaua.

Ontziaren olen irudi berdiñak atera dituzte eta oiekin beste ontzi txikiagoa, proporziñoan berdiña, egin dute... Ontzia ez zan gauza bitxia, lanerako egiña baikik. Lanerako egokia eta artarako bear ziranak, bazitun egoki ipiñiak... Barku osoak egitura miresgarria

erakusten digu; ordu artarako oso aurreratua... eta laboratorio izugarria barkugintza ikusteko...

Terranoba eta Labrador Pasaia'tik urruti daude; bitartean badaude 3.700 kilometro eta bela-ontziekin egiteko ez dira gutxi. Urruti egon arren, Colon'ek Amerika arkitu eta andik amabi urtera euskaldunek bazuten Kanada'n arrantza-industria sendoa... Ez ziran lo egon; eragozpenak ez ziran txikiak eta zailtasunak edonundik zetorzkien: gatzik ez zegoen Euskalerrian eta Cadiz'era joan bear billa; istipua Calatayud'etik ekarri bear eta pikea bera atzerritik.

Baña ez zituzten ezerk ikaritzen; Red Bay, 300 biztanle eskasakin an zegoen Jainkoak dakien tokietan eta, alaz ere, udaberrian 900 arrantzale euskaldunek uraxe artzen zuten bizileku udazkenerarte... Koipeak balio aundia zeukan argitarako, makinak leguntzeko, botikak egiteko... eta abarretako. Bizarrak ere ba'ziran koipearekin batera; makallauak itxaso estaltzen zuen eta arpoilari onak dirutza aundia irabazten zuen. Barku onen aztergilleak diotenez, arpoilariak gizon fuerteak ziran eta guztiak ziran ausartak, asko gelditzen bait ziran betirako erbestean, etxeko sepulturarik gabe eta zenbaitetan etxekoek nun lurperatuta zeuden sekulan jakin gabe...

Bi barku ezagun auek asko eta zeatzak ematen dizkigute gizon ausarta auen epopeiari buruz. Etxeberri lapuditar medikuak bale-arrantzaleai buruz ziona: "Biziaren gatik arriskatzen degu bizia".



ITXAS-GIZON BIKAÑAK

Magallanes eta Elkano

Pazifiko Itxaso 1513'ko Iraillaren 25'an ikusi zuten lenengo aldiz, Andes mendarteko gañetik, Vasco Nuñez de Balboa eta euskaldun beste bere lagunak. Bilbao'ko Pedro de Arbolantxa'k ekarri zuten aurkitze orren berria España'ra 1514'an. Itxaso artara joateko bidea billatzen saiatu ziran bat baño geiago.

Baña arkitze ori Hernando de Magallanes'eri tokatu zitzaion. Sevilla'tik irten zuen 1519'garrenge Abustuaren 10'an. Berarekin zijoan Juan Sebastian de Elkano, 31 euskaldunekin. Guztira 237 gizon zijoazen bost ontzi auetan: Santiago, San Antonio, La Concepción, La Trinidad eta La Victoria.

Iru urte iraun zuan ibil-aldiak. Patagonia'ren egoan aurkitu zuten bere izena daraman El Estrecho

de Magallanes. Urte bat eta bi illebeta Sevilla'tik irtenda gero, 1520'garren urteko Abenduaren 27'an eldu ziran Pazifikoko itxasora. Kañoika ospatu zuten berri ori: kañoiak Bilbao'koak ornen ziran (Plañtziatziatzi-Soraluze'koak seguru) eta polbora Ondarribia'koa.

Baña ara orduko Santiago ontzia galdu zan eta San Antonio'k, zapuztuta, alde egin zien, Iru ontzi bakarrik eldu ziran Pazifikoko'ra. Itsaso zabal artatik aurrera islas Filipinas'etara jo zuten eta an Concepcion ontzia erre, bear aria jende ez zutelako.

Ugarte aietan il zan Magallanes eta bere ordekoak, indioen eskuetan. 237 gizonek urten zuten; baña, 115 besterik ez dira gelditzen. Elkano da guztien gidari.

Bi urte Sevilla'tik irten eta gero, 1521'en Azaroaren 6'ean Islas de las Especies deritzaten ugartetan legorratzen dira eta bi ontziak, Trinidad eta Victoria, espeziak betetzen dituzte: clavo, canela eta nuez moscada.

Une aretan zalantza bat sortzen zaie, auxe: España'ra ezagun zuten bidetik itzuli, ala aurrera segi eta munduari bira osoa eman. Erabakia, aurrera joateakoa da; baña artan dabilzala Trinidad ontzia galdu dute, espeziak eta guzti.

Aurrera eta aurrera. Afrika'ko ego-muturretik (Cabo de Buena Esperanza) igaro dira. Gero, kostatik kostara, San Lucar'eraño eldu dira Irailla'ren 6'ean, urtea 1522, irteeratik iru urteetara. Munduari lenengo bira eman diote; andik 60 urteera, Drake ingelesak emango zion bigarrena.

Iraillaren 8'an, oiñutsik eta lur-jota, joan ziran Sevilla'ko Eliza Nagusira Jainkoa'ri eskerrak ematera. Elakano'rekin batera ziran Juan de Akurio kontra- maixua, 30 urtekoa eta bermiotarra, Juan de Arratia, bilbotarra 20 urtekoa, mari-erdi eta Juan de Zubileta, Barakaldokoa, txo, 18 urtekoa.

Elkano'ren eriotza

Iru urte beranduago, 1525'eko Uztaillaren 24' an, La Coruña'tik irten zuen, zazpi ontziekin, munduari bira egiteko asmoetan. Lau ontzi Elkano bereberak

prestatzen ditu Portugalete'n eta an emango dio asiera ibil-aldiari La Coruña'ra.

Andres Urdaneta, Ordizia'ko pillotua darama bere lagun; baita beste pillotu bat ere, Martin de Uriarte, eta Juan de Areizaga, apaiza. Aiekin batera Elkano beraren bi anai eta amairu euskaldun geiago.

Zazpi ontzi oietatik lau bakarrik eldu ziran Pazifikoko itxasora. Zabalgune aretan dabilzala il ziran barruan gizon asko eta aien artean Leaza, taldearen Kapitana (20-VII-1556) eta Elkano bera erabai (4-VIII-1556) bi aste beranduago.

Sakabanatu ziran ontziak eta amar urtez ibilli ziran basterrik baster. Moluka ugarteetara eldu zan Elkano'ren ontzia, Toribia Alonso de Salazar, enkarterrikoa, buru zuela. Onen ondorengoa, berriz, Elgoibar'ko Martin Iñiguez de Carquizano kapitana.

Gogoratu dezagun Martin de Urdaneta, ordiziarra, Moluka'ko ugarteetatik ez zan aldendu amar urte beranduago, baizik, 1535'urteko Otsaillaren 15'ean. Andik Islas de las Especies'era jo zuen España'ra etorri aurretik; azkenik Lisboa'n legorreratu zan 1535 urtearen Ekainean.

Amasei urte ondoren, Pralle Augustinotarra sartu zan Mexico'n 1552'an. Pillotu famatua pralle sartu zan; baña, ez zion itxasori laga. Konturatu, ez zata kosta-aldean jaio, Gipuzkoa'ko Goierrian baizik. Izan ere aldi aietako itxaso-egoeraren otsak kostak bakarrik ez, baita barruko mendiak ere betetzen zituan.

Orduan gertatu zana, gertau zan PYSBE'rekin ere. 1929'an, bi urte bretoinekin ibilli ondoren, gizon berriak bear ziraneean Terranoba'ra joateko, Gipuzkoa'ko goierriarrak, Urdaneta bezela, izen eman zuten makallautan joateko: Lazkano, Ataun, Olaberria, Beasain, Ordizia, Zaldibi eta Naparroko gizasemeak joan ziran, makallau-arrantza berriztatzerak. Zergaitik? Kapitana, Eustakio Arrinda, lekeitiarra, Lazkano'n ezkondu zegoalako. Gizonak bear zitun Terranoba'rako sareak zaintzeko, gatza emateko, buruak mozteko, zabal-zabal arraia uzteko... Eta bertatik asi zan billatzen; baita aurkitu ere mutil gazte ederrak... 200 urte zeramazkiten euskaldunek makallautan joan gabe eta nundik asiko eta Goierriko base-rietatik asi ziran. Danak ez ziran kostakoak.

Urdaneta eta Legazpi

Andres Urdaneta, Ordizia'ko pillotua, Elkanorekin irten zuan munduari bira bigarren aldiz emateko asmotan; baña, asmoa ustel gertatu zan, Elkano bera ere bide erdian il zalarik. Amar urte itxaso zabal artan ibilli ondoren, etxera biurtu zan 1536'an. Bereala Mexico'ra itzuli zan eta 16 urte beranduago Pralle Agustino sartu zan 1552'an.

Andik 7 urteetara, Felipe II'garrenak, España'ko erregeak, ontzi talde bat eratu zuan Filipinetako Ugartera. (Isla Filipinas izena Felipe II'garrenak eman zien menderatuta gero). Urdaneta'ri dei egin zion lan orretan parte artu zezan; berak ezagutzen zitualako itxaso aiek eta ugarteak; gañera itxasoko mapak egiten jakintsua zan.

Lau ontzi ziran danetara: San Pedro, kapitan nagusiarena, San Pablo, San Juan eta San Lucas. Zuzendari nagusi Miguel Lopez de Legazpi eta Gorrotxategi, Zumarraga'koa, izendatu zuten, naiz eta itxasgizona ez izan. Berak eta Urdaneta, Ordizia'koak, biak, zuzendu zuten ontzi-taldea.

San Pedro ontzi nagusian, Martin de Ibarra, bilbotarra kapitan, eta Ontzi-maixua, zijoan eta Andres de Ibarra Alferreza, mexicotarra; Infanteriako kapitan Martin de Goiti, Andres de Mirandaola (Urdaneta'ren illoba), Felipe de Salcedo Legazpi'ren billoba, bi Aita Agustino euskaldunak... Beste ontzietan beste amar euskaldun zijoazen...

Mexico'tik irten zuten 1564'garren urteko Abenduaren 20'ean eta Cebú deritzan Filipine'tako ugartera 1565'garrengo Apirillaren 27'an eldu ziran. Ontzi-taldea Filipine'tara eramanda bete zuan bere eginbearra Urdaneta'k eta Mexico'ra ituli zan, joandako San Pedro ontzi berean. Urte orren Eikaineko lenengo egunean irten eta Acapulco'ra eldu ziran Urriaren 3'an, irten eta lau illebeta beranduago.

Legazpi gelditu zan bertan, Filipinesetako ugarte guztiak menperatu arte. Bera izan zan ugarte guztien lenego Gobernadorea. Manila uria berak eraiki zuan ugarte guztien uri nagusia lez. urtea 1570. Berak menperatu eta zibilizatutako Ugarteen buru, Guido de Labezarri gelditu zan, aren ondoren.

1575'an Labezarri'k Txina'ra enbajada bat bialdu zuen, Martin de Rada, agustino euskalduna Urdaneta'rekin joana buru zala... Urte batzuek beranduago, 1611'an, Sebastian Bizkaino euskalduna Japoi'ko Erregearen aurrera joanik zan...

Atlantiko eta Pazifiko-itxaso baztarrak, Filipinas ugarteetaraino, guztiak ziran guren zabalak mutil euskaldunek beuren ausardia agertzeko. Jakiña da maiorazgoak etxerako ziran eta aurrekoen etxea bere osoan gorde bear zutela; baña, ondorengo semeak munduko zabalgunek eurentzako eskaiñiak zeuzkatela... Eta alaxe ibilli ziran ibilli itxaso guztietan... Euskalerrria, barku-olaz beteta zeuzkan beure kosta guztiak eta ez zan ontzirik falta asmo ausartenak betetzeko...

Bete zituzten sinistu eziñezko ekintzak, baña, idazten murriz izan ziran beti: "Largos en facellas y cortos en contallas" erdaldun esaerak dionez.

Gai oneri buruz, gaia ugaria da: itxasoak euskaldun ausartez beteta daude eta euren billa luzatu ezin. Au ez da euskaldun ekintzeen istoria zeea, edestigioia, baizik. Eta une onetan emango diogu gai oneri amaiera.

Arrinda'tar Anes

GOIZALDIA

Gau ametsak ba doaz
lo larrien artean
eskutu-zulora:
argi izpia dator
itxaso barrenetik
mendi tontorrera.


Eguzkia asten da
goi aldean zabaltzen
urrezko dizdiraz;
ta aidean egaz doa
lurrak poztueraziz
goizeko argiaz.

Paulin



Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa